

Euroak ia bukatu egin ziren atzo banku, komertzio eta ostalaritzan

■ Bankuak topera aritu ziren goiz guztian, baina, jendeak eskatu adina euro eman ezinda ■ Kajero guztietan daude euroak ■ Komeriak izan zituzten nahiko euro hartu ez zituzten dendeak.

EUROA bete-betean sartu da Hernanin. Azkeneko egunera arte atzeratzen ibili zenak ere, atzo, aurre egin behar izan zion errealitateari. Bankuek ez zeukaten berak nahi adina euro. Ez zuten ematerik izan jendeak eskatutako guztia.

Euroekin ordaindu zuenari, bueltak eurotan eman zizkioten denda guztietan. Pezetekin ordaindu zutenei, denda batzuetan euroak bueltatu zizkioten; beste batzuetan pezetak.

BANKUETAN ERRENKA HAUNDIAK

Goizean goizetik, euro bila inguratu ziren bankuetara dendariak eta kaleko jendea: pezetak utzi eta euroak hartu. Bankuek ez zuten izan harterik berak nahi zituzten euro guztiak, horregatik, goiza bukatzerako, euro gutxiarekin geratu ziren. Hernaniko banku bateko langileak esan digunez, "ez digute bidaltzen, euro gabe geratuko gerra, seguru!"

Dena dela, ez zuten eskatutako kantitate guztia aldatzen. Beste banku batean Kronikari adierazi diotenez: "gutxi eskatu ezker ematen diegu; asko eskatu ezker nekezago. Dendariei-eta diru gehiago aldatzen diegu".

KAJERO GUZTIEK EUROAK

Atzotik, Hernaniko kajero guztietan daude euroak. Gehienetan, haundiena 50 eurokoa da eta txikiena 10ekoa edo 20koa; 5 eurokoa ez du ia inongo kajerok ematen; 100ekoa eta 200ekoa ere ez; bankuan bakarrik.



Jende ilada luzeak izan ziren pezetak aldatu eta euroak hartzeko.

BUELTAK PEZETETAN ETA EUROTAN

Denda gehienek aparte kobratzen zituzten euroak eta pezetak. Pezeta ekarri zuenari pezeta, eta euroa zekarrenari euroa. Denda bateko jabeak esan bezela: "kaja batean euroak eta bestean pezetak. Euroekin datorrenari euroa; pezetekin datorrenari pezeta. Ni ez naute Santa Agedan sartuko!".

Batzuek pezeta hartu eta euroa bueltatzen dute, hartarako makinak dituztelako: "oso erreza da" zioten perfumeria batean, "makinak esaten digu dena. Zenbat pezeta jaso diran sartu eta berak ematen du kanbioa eurotan".

BATZUK LARRI

Bezero batzuk komeriak dabilzkite oraindik, eurora

moldatzeko, eta supermerkatu batzuetan berak egiten dute banku-lana: "guk badugu nahikoa eta dena eurotan bueltatzen dugu" esan digu batek. "Norbaitek kanbioa ulertzen ez badu, pezetak eurotara aldatu eta eurotan ordaindu arazten diogu". Beste establezimendu batzuetan beren tabla partikularrekin funtzionatzen dute.

MAHAI TENISA

Aitor Mitxelena eta Erik Díez Euskadiko txapelkun

■ Hernaniarrek urrezko 5 medaila irabazi dituzte.

JOAN den igandean Euskadiko Mahai tenis Txapelketak jokatu ziren alebin, infantil eta jubenil kategorietan. Hernaniarrek sekulako erakustaldia eman eta lau urrezko medaila irabazi zituzten, zilarrezko eta brontzezko batzuk ere bai.

MITXELENA, DÍEZ ETA VALVERDE

Mitxelena, Díez eta Valverdek irabazi zituzten Hernaniko bost urrezko medailak. Jubenilen kategorian, buruz buru, Mitxelena-Valverdek jokatu zuten finala: partidu gogorra izan zen eta gauzak estu joan ziren, baina, azkenean Aitor Mitxelena atera zen Euskadiko txapelkun.

Bikotekako txapelketan bi hernaniarrek elkarrekin jokatu zuten Vaqueriza-Legarraren kontra, eta hor irabazi egin zuten.

Infantil kategorian, Erik Díezek bi urrezko medaila irabazi zituen. Bat buruz burukoan, Eder Mouriz gasteiztarraren kontra; eta bestea bikoteka, Iker Martinezekin batera.

Emakumezkoetan, Julene San Casimirok oso lan ona egin zuen. Julene alebina da edadez, baina, jubeniletako txapelketa ere jokatu zuen, (bera baino urtebete zaharagoekin): buruz buru laugarren gelditu zen eta taldekako txapelketan bigarren. Bere kategorian, berriz, alebinetan, buruz buru zilarrezko domina irabazi zuten eta binakakoan ere bai.

Alebinetan, berriz, hernaniarrek ez ziren lehen fasetik pasa.

Txema Armentia jokalaria eta entrenatzaileak esan du oso emaitza onak izan direla. Armentiak datozen Gipuzkoa eta Estatuko txapelketetan emaitzok beren ondorena izatea espero du.

DENDA ARKA

Eurorako presta zaituz, egin oparia zure buruari!

Jantzi zure ordenagailua mahai praktiko eta eserleku komodo batekin.

Preziorik onenak **Arkan**.

Ezagutu **Uztarri** estanteria; merkatuan bakarra da.

ARKA DENDA -KARDABERAZ KALEA 41 ☎ 943 33 34 87-

GALARRETA JAI-ALAI!

FRONTOIA

Gaur binakako txapelketako partidua:
ALTUNA I-EIZAGIRRE / ALTUNA II-ETXABE

GAUR ARRATSALDEKO 16:00 ETATIK AURRERA ERREMONTA JAIALDIA:

1. partidua: ZEBERIO III - ETXEBERRIA II / MATXIN III - BADIOLA
2. partidua: ALTUNA I - EIZAGIRRE / ALTUNA II - ETXABE
3. partidua: MATXIN - AIZPURU / IÑIGO - A. LEKUNBERRI
4. partidua: BEREZIARTUA - AIZPURUA II / IRIBARREN - URKO

MENDIRIZ MENDI

Eski kurtsiloak, mendiko material azoka eta mendi irteera urtarrilean

■ Eski ikastaroa: urtarrilaren 19-20ko asteburuan ■ Azoka: urtarrilaren 14tik 18ra ■ *Zalamara* mendi buelta: urtarrilaren 13an ■ Izena emateko epeak zabalik dago.

MENDIRIZ Mendi elkarteak urte berria fuertea hasi du, urtarrilerako 3 ekitali antolatuta: eski *alpino* eta *fondoko* ikastaroa, mendiko material azoka eta 9 orduko mendi irteera. Eski ikastaroak eta azokak urtero antolatzen ditu eta mendizaleek oso harrera ona egiten diete.

ESKI IKASTAROA

Eskiatzen ikasi edo ikasia mehoratu nahi duenak aukera ederra du urtarrilaren 19-20ko asteburuan. Ikastaroa teorikoa eta praktikoa da, baina, oraindik erabaki gabe dago zein estaziotan egingo den.

Izena emateko epea zabalik dago: astelehen, asteazken eta ostiralean, pasa Mendiriz Mendiko lokaletik (Iturregi z/g), 20:00etatik 21:00etara.

URTARRILAREN 14an, BILERA

Mendiriz Mendik eski ikastaroaren detaileak apuntatzen den jendearekin lotzen ditu. Dijoan jendeak segun eta zein maila duen, horren neurriko ikastaroa egiten du. Hori dena lotzeko urtarrilaren 14an, astelehena, bilera egingo da Mendiriz



Mendiriz Mendin, iazko eski ikastaroko bileran.

Mendiko lokalean bertan, arratsaldeko 20:00etan. Ikastaroaren prezio, ordutegi eta bestelako detaile guztiak ere bilera horretan azalduko dira.

MATERIAL AZOKA ASTE OSOAN

Mendiriz Mendik bigarren eskuko mendiko material azoka antolatzen du, eta aurten ere bazkideei egin die azoka osatzeko deia. Azokan mendiko botak, eskiatzeko botak, eskiak, txamarrak, mapak eta abar izaten dira. Materiala salgai jarri nahi duenak urtarrilaren 11 du azken eguna. Materiala Mendiriz Mendiko loka-

lera eraman behar da. Azoka bera urtarrilaren 14tik 18ra egongo da zabalik, astelehentik ostiralera, arratsaldeko 19:30etatik 21:30etara

HELDUENTZAT MENDI IRTEERA

Mendiriz Mendik urtean 25-30 mendi irteera antolatzen ditu, heldu eta gaztetxoentzat. Aurtengo lehenbizikoa urtarrilaren 13an da, igandea: Pto de los Tornos (920 m) - *Zalama* (1.336 m) - *Kolitz*a (879 m) - *Pandozales* (283 m). Bederatzi orduko mendi buelta. Gaur da izena emateko azken eguna. □

Manuel Olano Garayar 'Mallu' hil da

■ Orain bi urte Kardaberaz kaleko 'Alkate makila' jaso zuen ■ Herrian oso ezaguna zen.



Mallu Olano (eskubian) Idarreta eta Sagarna Kardaberaz kaleko 'auzo alkateekin'.

INAUTERIETAKO karrozek ere hutsune haundi bat izango dute aurten Hernanin: Manuel Olano *Mallu*. Manuel Olano atzo hil zen 88 urte zituela. Duela bi urte, *Kaxko* auzo elkarteak *Andrekaleko* 'Alkate makila' eman zion, eta aurten Martin Idarretak jaso zuen *Mallu* zenaren eskutik.

Manuel Olanoren arimaren aldeko hileta elizkizuna gaur izango da; arratsaldeko 19:00etan Juan Bataiatzailea parrokan. □

BADATZ ERREGEAK, BADATZ



ZATZ TXIMELETARA ZURE OPARIK AUKERATZERA Txirrita,10 ☎ 943 552395 - HERNANI


Hitzaldia: AHT

■ AHTren kontrako Hernaniko taldeak deitu du hitzaldira joateko. Gaur, 18:30etan Koldo Mitxelena.

3/4 PLATAFORMA

Kontzentrazioa, 20:00etan

■ 3/4 plataformak kontzentrazioa deitu du gaur, zigorraren hiru laurdenak bete dituzten preso askatasuna eskatzeko. Ordua 20:00etara atzeratu da, Manuel Olanoren aldeko hileta zazpitan delako. □



OKINDEGIA
ANTZIOLA

Eguneroko ogirik onena!

ANTZIOLA AUZOA, 3
Tel. 943 55 17 91
HERNANI

ERREMONTEA

Etxabe ariko da gaur bi bitako txapelketan

■ ERREMONTEKO bi bitako txapelketa aurrera dioa. Gaur Altuna I-Eizagirre eta Altuna II-Etxabek neurteko dituzte indarrak. Galarretan jokatu da, arratsaldeko 16:00etatik aurrerako erremontere jaialdian.

Kronikako kalendariora kalean da

■ Zinkoenea, Konde eta Plaza Berriko kioskoetan, Antziola eta Dorronsoro okindegietan, Floridako Fronton tabernan Doberan eta Kornikan ■ Laguntza: 3 euro.

HERNANI 2002



URTARRILA	OTSAILA
1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28
MARTXOA	APIRILA
1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30
MAIATZA	EKAINA
1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30
UZTAILA	ABUZTUA
1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31
IRAILA	URRIA
1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31
AZAROA	ABENDUA
1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29

Kronikako aurtengo kalendariora.

'HERNANI 2002' Kronikako kalendariora kalean da joan deneko astebetean. Aurtengo argazkiek omenaldiak, zenbait jai, sariketa, ikuskizun eta nobedade biltzen dituzte, nagusi-

ki. Erdiko argazkia udaletxe berrituarena da, San Joanetan ateratakoa.

Kalendariora Erregenak pasarte egongo da kalean, goian esandako puntuetan. □

HERIOTZAK

Francisco Barreiro Gosenge
Asteartean hil zen 84 urte zituela

Manuel Olano Garayar 'Mallu'
Atzo hil zen 88 urte zituela
Hileta elizkizuna, gaur osteguna, 19:00etan,
Juan Bataiatzailea parrokan.



Skoda Fabia Datorren
jendearentzat

MENABI
Txingurri pasealekua 26 - Herrera - DONOSTIA Tel. 943-40 42 43